



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2016KO OTSAILAREN 26AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**

Etorri diren zinegotziak:

Maria Iciar Jauregui Huarte  
Victoria Rodriguez Feloaga

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko otsailaren 26an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2016KO OTSAILAREN 12KO AKTAREN ONARPENA**

2016ko otsailaren 12an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2016ko otsailaren 12an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2016KO OTSAILAREN 24AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN AKTAREN ONARPENA.**

#### **2.1 OBRA ENKARGATUAREN LANPOSTUAREN EGINKIZUNEN ALDAKETA**

Obra enkargatuaren lanpostua hutsik dago 2013ko irailetik, bere titularra jubilatu egin zelako.

Lanpostu hau betetzeko prozesua martxan jarri behar den honetan, egokia ikusi da lanpostuen katalogoan ezarrita zeuzkan funtzioak berraztertzea.

2016ko otsailaren 24ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzorde honek aho-batez harturko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea Obra enkargatuaren lanpostuaren funtzioak:

- Bere kargura dauden langileen lanak koordinatzea, kontrolatzea eta antolatzea udal arkitekto teknikoak emaniko jarraibideen arabera.
- Obra eta zerbitzuetako lantaldeko langileen lana antolatzea, banatzea eta kontrolatzea.
- Kiroldegiko zerbitzuen enpresak esleipendunaren kudeatzailearekin koordinatzea kiroldegiko mantentzearekin zerikusia duten gaiak.
- Bide garbiketaren zerbitzua gainbegiratzea.
- Udal arkitekto teknikoaren batera aztertzea herritarrengandik jasotako iradokizun edo kexak. Erantzuna eman daitekeen kasuetan, jarduketara udal brigadarekin planifikatzea eta kontrolatzea. Erantzunak kanpoko zerbitzu bat eskatzen badu teknikoarekin elkarlanean aritzea berau esleitzeko.
- Lanak burutzeko ezinbesteko den materialaren eta biltegian pilatzen denaren erosketa proposatzea.
- Bere kargura dauden langileen lanak ikuskatzea, horien kalitatea eta egokitasuna ziurtatzeko.
- Eraikin publikoen mantenimendua.
- Bere kargura dauden langileen lan parteak, opor txostenak eta ordutegi kontrolak egitea.

Honako gaietan elkarlanean aritzea:

- Udaletik kanpoko enprekin kontratatu behar diren zerbitzuetako agiri teknikoak.
- Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuetako departamentuarekin elkarlana euri-uren saneamendu eta argiteria sareen lokalizazioan.
- Gipuzkoako Uraekin koordinatu eta lankidetzan aritu ur zikinen saneamendu eta ur banaketa sareen lokalizazioan eta baita matxuren lokalizazioan ere.
- Udalak kontratatu dituen obren kontrol eta ikuskatzea, udal arkitekto teknikoarekin batera eta Zerbitzuetako departamentuaren eskumeneko gaietan.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- Udalak sustaturiko ekintza edo festetako jardueretan behar orokorreari erantzuna emateaz arduratzea: argindarra eta ura, kiosko eta oholtzak, ekintzak antolatzeke tokien garbiketa.
- Zerbitzuko material, tresneria, makineria eta ibilgailuen erabilera onaren kontrol eta jarraipena.
- Herri-bide eta eremu publikoetan gertatzen diren udal matxura eta bestelako obren zaintza, kontrola eta seinaleztatzea.

Noizbehinkako eginkizunak:

- Udal iragarki panelak jartzeko eta kentzeko lanak, eta hauteskundeetako kanpainetan garbiketa lana koordinatu eta kontrolatzea.
- Betetzen duen lanpostuaren kategoriaren arabera agintzen zaizkion bestelako zereginak.

## **2.2 OBRA ENKARGATUAREN LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAREN DEIALDIA EGITEA ETA OINARRIAK ONARTZEA**

Obra enkargatuaren lanpostua hutsik dago 2013ko irailetik, bere titularra jubilatuta egon zelako.

Beharrezkoa denez lanpostu hori behin betiko prozesu baten bidez betetzea, egokia ikusi da merituen lehiaketa bidez betetzea.

Izangaiek Ibarra Udalean karrerako funtzionario izan beharko dute, eta Administrazio Bereziaren, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Ofizioetako Langilea, C2 azpitaldeko plaza batera behin betiko adskribatuta egon beharko dute.

Kontuan izanda urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Herri Langilearen Oinarriko Estatutaren testu bateragina onartzen duenak, 78 eta 79 artikuluetan dioena eta baita 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.g, 91 eta 100 artikuluetan dioena.

Kontuan izanda Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen Legeak 54. artikuluan dioena eta 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena,

2016ko otsailaren 24ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzorde honek aho-batez harturko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Deialdia egitea Obra enkargatuaren lanpostua merituen lehiaketa bidez betetzeko.

BIGARRENA: Onartzea hutsik dagoen Obra enkargatuaren lanpostua betetzeko oinarriak, merituen lehiaketa bidez egingo dena. (I eranskina)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

HIRUGARRENA: Oinarri horiek Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitara ematea eta baita aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean.. Horrela, hamabost eguneko epean, Estatuko aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik kontatzen hasita, interesdunek beren eskabidea aurkeztu ahal izango dute.

### **2.3 KULTURAKO TEKNIKARIAK AURKEZTURIKO IDATZIARI ERANTZUNA**

Ikusi da urriaren 2016ko urtarrilaren 13an Kultura Teknikariak aurkeztu duen idatzia.

Bertan azaltzen du Udal langileen ordutegiaren kontrola eta laneko presentziaren arautegia aplikatuz, azaroan lan eginak zituen 15 ordu eta 41 minutu alde batetik, eta abenduan lan eginak zituen 6 ordu eta 55 minutu bestetik, kendu egin zaizkiola.

Baita ere azaltzen du 2015eko abuztutik abendura Kultur Etxean egin dituen ordezkapenak, denera 62 ordu, eta horrek zama handia suposatzen duela, eta bere lanarekiko eragin eztabaidaezina dela.

Eskatzen du:

- 1) Pertsonal sailetik jaso dituen zigorrak berraztertu daitezela eta kitatu zaizkion lan egindako 22 ordu eta 36 minutuak aitortu eta bere aldeko saldora bueltatuak izan daitezeka.
- 2) Arautegiaren aplikazioa egin eta zigorrak ezarri aurretik, Udalak langileok audientziarako eta defentsarako dugun eskubidea bermatu eta gauzatu dezala.
- 3) Azaldutadoren baitan, Udal langileen ordutegiaren kontrola eta laneko presentzia arautzen duen arautegiaren berrikuspena eta egokitzapena egin dadila.

2016ko otsailaren 24ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzorde honek aho-batez harturko

#### **ERABAKIA**

BAKARRA: Kultura Teknikariari jakinaraztea honako erabaki hau:

- a) 2015eko abuztuaren 7ko 227/2015 Alkate Dekretuaren arabera 3 ordu baino gehiagoko saldo positiboan kasuan, 3 orduko gehieneko horretatik gorakoa galdu egingo dela.
- b) Bere lanpostuak malgutasun osoa daukala ezarrita ordutegiari dagokionez.
- c) Harrerako lanpostua ordezkatzeko, ez bada egun batekoa edo bapatekoa, langile bat kontratatzen dela.
- d) Liburuzainaren lanpostuaren ordezkatzeko berriz, liburuzainen lan poltsa daukan udal bakarra Donostiakoa da. 2015ean udal liburuzainaren baja ordezkatzeko eskatu genuen lan poltsa horren datuak pasatzea baina euren araudiaren arabera, ezin digute lan poltsa osoa pasa, baizik eta banan banan. Horrela egin genuen baina denak lanean ari ziren.  
Balortatu beharko da ordezkapen hauek liburuzain laguntzaileen bitartez egitea.

### **2.4 JON IJURKO ESNAOLAREN EGUTEGIA**

Ikusi da Jon Ijurko Esnaolak aurkeztu duen egutegia. Ikusi da abenduan hilabete osoa oporrak hartu nahi dituela.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Urte bukaeran sortzen diren lanak direla eta (TAO adibidez), ez da egokia ikusten Aguazilak oporrak hartzea sasoi horretan.

2016ko otsailaren 24ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzorde honek aho-batez harturko

### ERABAKIA

BAKARRA: Jon Ijurko Esnaolari honako erabaki hau jakinaraztea:

- 1) Ezin dituela oporrak hartu abenduaren 2. Hamabostaldian.
- 2) Aurten Udaltzingoa sortzen bada, hauekin koordinatu beharko dituela bere oporrak.

### **HIRUGARRENA:**

### **3.- 2016KO OTSAILAREN 19AN BURUTURIKO OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAREN AKTAREN ONARPENA**

### **3.1 SARBIDETASUNA-MUGIKORTASUNA HOBETZEKO OBRAK IBAIGAIN ZUBIAREN ONDOAN ETA ANBULATORIOKO BEKOBIDE BIDEGURUTZEAN**

Ibarran sarbidetasun eta mugikortasuna hobetzeko helburuarekin ikusi da bi gune daudela mugikortasun murriztua duten oinezkoen pasoa zailtzen dutenak. Bat, zubitik San Bartolome plazarako sarbidea da, eta bestea, Bekobide bidegurutzeara (anbulatoriotik datorren espaloia).

Zubiko sarbidean hau egin nahi da: asfaltoa kendu eta Ibaitegi baratzeko muga egiten duen harresi ondoko espaloia lotu erreka ondoko espaloiarekin. Horrela pasabidea espaloitik izango da guztiz, eta ibilgailuak zubi ondoan aparkatzea saihestuko da. Dena den, ohitura denez espaloietan aparkatzea, bi pizona teleskopiko atzeraemangarri jarriko dira giltzarekin pasabidea libre gelditzeko.

Bekobide bidegurutzearan, berriz, bi espaloien kota jaitsiko da eta bidea altxatu 5 cm-ko asfaltoarekin, oinezkoen pasabidea maila berean gelditzeko.

Obra hauek partida honetatik finantzatuko dira: 1 0000.210450.00.00 2016 (Bide azpiegitura gastuak).

Enpresa hauei eskatu zaie aurrekontua:

- Mularri SL
- Excavaciones undiarte SL
- Construcciones Hugar SL

Hauek dira proposamenak (BEZ sartuta)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>OBRA</b>	<b>MULARRI ERAIKUNTZAK S.L.</b>	<b>EXCAVACIONES UNDIARTE S.L.</b>	<b>CONSTGRUCCIONES HUGAR S.L.</b>
<b>IBAIGAIN ZUBI ONDOAN</b>	11.433,99 €	12.885,93 €	13.538,53 €
<b>BEKOBIDE BIDEGURUTZEA</b>	8.269,85 €	13.055,54 €	9.880,78 €
<b>GUZTIRA</b>	19.703,84 €	25.941,47 €	23.419,31 €

Ikusi da Ibaitegiko harresi ondoko harriz estalitako bankuak gutxi erabiltzen direla eta espaloia estutzen dutela 40 cm.

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: esleitzea Mularri Eraikuntzak SL enpresari, merkeena delako, sarbidetasun-mugikortasuna hobetzeko lan hauek: Ibaigain zubi ondoan eta Bekobide bidegurutzean ambulatorio aldera. Prezioa 19.703,84€ da (%21eko BEZ sartuta). Partida honetatik finantzatuko da: 1 0000.210450.00.00 2016 (Bide azpiegitura gastuak).

BIGARRENA: Ibaitegi harresi ondoko harriz estalitako hiru bankuak kentzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Mularri Eraikuntzak S.L enpresari eta Kontuhartzaitelza sailari.

### **3.2 ERRETIRATUEN ELKARTEKO ONTZI-GARBIGAILUA**

2015eko urriaren 30ean eginiko bileran M<sup>a</sup> Dolores Ibañez, elkarteko tabernakoaren eskaera aztertu zen. Bertan esaten zuen tabernako eta sukaldeko ontzi-garbigailuak ez dabiltzala. Tabernakoa konpondu dute baina sukaldekoa ezin da. Hiru aurrekontu eskatu dira bat erosteko (BEZ sartu gabe):

- Difri Delta lavavajillas industrial: .....2.230 €
- Sammic X-50 lavavajillas industrial .....2.552 €
- Lavavajillas C-500 Fagor industrial.....1.699,50 €
- Lavavajillas C-501 Fagor industrial.....1.948,50 €

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENENGOA: Erostea C-501 Fagor industrial ontzi-garbigailua. Prezioa 2.357,69€ da (%21 BEZ sartuta). Garestiagoa izan arren, C-500 baino osoagoa da. Partida honetatik finantzatu da: 1 0000.623.337.10.01.2016.

BIGARRENA: Honen berri ematea eskaintza egin duten gainerako enpresei.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari.

### **3.3 MONTEREN AURREKONTUA ONARTZEA BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAREN BULEGOA EGOKITZEKO**

Bildu Koalizioak erabiltzen duen gela egokitu beharrean dago eta ondorioz Monterri eskatu zitzaion aurrekontua altzariak erosteko. Aurrekontua:

Mahaia Primo Space 2000x800.....	527,14 €
Hegala Primo Space 2000x800.....	223,71 €
3 tiraderako 2 tiradera-altzari 430x600x595.....	<u>732,00 €</u>
	1.482,85 €
+ %21% BEZ.....	<u>311,40 €</u>
GUZTIRA.....	1.794,25 €

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Monterren aurrekontua goian adierazitako altzariak erosteko. Prezioa 1.794,25 BEZ sartuta. Partida honetatik finantzatu da: 10000.220.920.00.01 2016.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

### **3.4 MUSIKA-ENTSEGU LOKALETARAKO APALATEGIAK EROSTEKO GASTUA ONARTZEA**

Entseguak egin behar dituzten musika taldeek apalategiak behar dituzte beren tresnak uzteko. Kaisekraft katalogoko eredu bat (209 orr.) hartu da kontuan erreferentzia modura banaketa egiteko.

-Hiru lokaletan eta korridorean 2 jarriko dira 1,50 x 0,60 x 2,00. Guztira 3 metroko 4 apal .

Enpresak aurkezturiko aurrekontuaren arabera, prezioa 2.138,80€ da BEZ sartuta.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea kaiserkraft enpresaren aurrekontua goian adierazitako materiala erosteko. Guztira 2.138,80€ BEZ sartuta.

BIGARRENA: Egun ez dago aurrekontu kontsignaziorik, beraz 2/2016 kreditu aldaketaren bidez egingo da ordainketa. Espediente hori 2015eko aurrekontu orokorraren kitapena onartu ondoren egingo da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

### **3.5 JUANA GRANADO AND.AREN 80 URTERAKO NITXOARI UKO EGITEA ETA TASAREN ZATI BAT ITZULTZEKO ESKAERA**

1988 urtean Teofilo Granada jn.ak eta bere familiak 80 urterako bi nitxo eskuratu zituzten udal hilerrian (E kaleko 3 ilarako 19 eta 20 zk.dunak). Familiako inor ez denez bizi Ibarra eta araudiak ez duenez uzten beste herrietakoak lurperatzen nitxoei uko egin nahi die eta eskatzen du tasaren zatia itzultzeko, bizi kostuaren hazkundearekin eguneratuta.

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: jakinaraztea Juana Granada Hernandezi udalak ez duela nitxo gehiagoren beharrik, izan ere, kontuan izanda 10 urterako lagatzen diren nitxoaren kopurua eta %50 gutxi gorabehera erraustu egiten direla, udalak berma dezake zerbitzua, kopuru gehiagoren beharrik gabe. Ondorioz, Ibarra udalak ez du nitxoa erosteko borondaterik agertzen.

Dena den, noizbait nitxo gehiago beharko balira udala harremanetan jarriko litzateke eskatzailearekin nitxo horiek erosi ahal izateko.

BIGARRENGOA: Bestalde familiako norbait nitxo horretan lurperatu nahi izanez gero, Ibarra Udalaren aurrean eskaera eginteko aukera izango du eta onartzeko aukera legoke.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Juan Granada Hernandezi

### **3.6 AIORA AGINAGALDEREN ERREKLAMAZIOA**

2015eko ekainaren 30ean Aiora Aginalde and.ak sarrailagileari deitu behar izan zion, ezin zuelako EH 18-2 zk.ko 4C etxebizitzako atea ireki. Berogailuen kolektoretan izandako ihes batzuek hezetasuna sortu zuten eta sarraila hondatu zen. Faktura 159,72ekoa da eta ordaintzeko eskatzen du.

Sarrailagilearen lana ez da izan eskatzailearen erruz eskatuta.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: Ordaintzea Aiora Aginagalde and.ari atearen faktura, guztira 159,72€ Partida honetatik ordainduko da: 1 0000.224.920.00.01 2016.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

### **3. 7 UR-SARTZEA KONPONTZEA TRAECOREN LOKALEAN, EUSKAL HERRIA 18 GARAJE 1 SARRERATIK**

Euskal Herria 18 zk.ko sotoko lokaletan eta garajetan altuerarekin izan ziren arazoak direla eta, soto -1 solairutik garajerako sarbidea aldaparik gabe gelditu zen euri-urak hustutzeko. Ondorioz, ura sartzen da ondoko lokalean eta bide garbiketa egiten duen enpresak erabiltzen du lokal hori.

Antzibarri eskatu zaio aurrekontua zolata eta horma topatzen diren gunea iragazgaizteko, ATK 46 bidez kaña erdia eginez eta ATK TOP griseko bi kaparekin estaldura egin iragazgaizteko, horiek ATK VEL mailaz armatuak eta aurretik ATK PRIMER inprimaketarekin, zorutik 10 cm-ko garapenarekin eta horman 5 cm.

Aurrekontua 635,55 €da, BEZ sartuta.

2016ko otsailaren 19an buruturiko Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea Antzibarren aurrekontua goian adierazitako konponketa egiteko. Prezioa 635,5€da BEZ sartuta. Partida honetatik finantzatu da: 1 0000.212.231.40 00 2016.

### **4.- 2016KO OTSAILAREN 22AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIEN ONARPENA**

#### **4.1 ESKOLAKO AGENDA 21 2015-2016. LEHEN EKARPENA 2015-2016**

Eskolako Agenda 21aren inguruan Tolosako Ingurumen Zentroa (TIZ) arduratzen da eskualdeko ikastetxeak koordinatzeaz. Bulego tekniko bezala funtzionatzen du eta aukeratutako gaiari buruzko diagnosis osotzeko materialak eta ekintzak prestatzen ditu.

Tolosaldea Garatzenek eskualdeko udal bakoitzari dagokion EA21eko kuota fakturatzen dio eta, horretaz



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

gain, Eusko Jaurlaritzara dirulaguntza eskatzen du eskualdeko udal guztien izenean.

Kontuan hartuta 2015-2016 ikasturtean Uzturpe Ikastolako ikasleek "Kontsumoa" gaia lantzen ari direla eta Ibarra Udalari guztira 3.004,87 euroko zenbatekoa ordaintzea dagokiola.

Kontuan hartuta guztizko zenbateko hori Tolosaldea Garatzenek bi zatitan fakturatuko diola Udalari, lehen ekarpena (%50) 1.502,43 eurokoa izanik.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak EA21ari dagokion zenbatekoa 2016ko Aurrekontu Orokorraren bidez finantzatu duela, 1 0000.422.170.10.00 partidatik.

2016ko otsailaren 22an buruturiko Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea Tolosaldea Garatzenen lehen ekarpeneko faktura, guztira 1.502,43 euroko zenbatekoagatik.

**BIGARRENA:** Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1 0000.422.170.10.00 2016 partidatik ordaintzea Tolosaldea Garatzenari.

**HIRUGARRENA:** Irizpen honen berri kontuhartzaitzari ematea.

## **4.2 URBIDEEN ETA BASERRI BIDEEN KUNETAK GARBITZEKO ZERBITZUA**

2015eko azaroaren 19an Tolomendik eskualdeko udalei jakinarazi zien, enplegua sustatzeko helburuarekin, Lanbidetik baserri bideetako eta ur bideetako kunetak garbitzeko lau langileen kontrataziorako 30.000 euroko diru laguntza jaso zuela.

Lau langileen kontratazioa Belarmenditik egin da, guztira 6 hilabeterako eta 7 ordu/eguneko lan jardunarekin.

Ibarra Udalak herri bideetan kunetak garbitzearekin interesaturik agertu zen, eta lau langile hauek bost egunez Ibarra lan egiteko eskaera luzatu zion Tolomendiri 2015eko azaroaren 27a baino lehen, Tolomendik udalei erantzuna eman zezaten ezarritako epemuga.

Ibarra Udalak, iazko moduan, honoko lanak aurreikusitako zituen: Argindegitik Izaskunera doan bide bazterrak garbitzea, Molpido bideko kunetak garbitzea, Belabietako pistan kunetak garbitzea, eta abar.

Hau guztia kontuan hartuta, eta eskualdeko udalen artean egutegiak koordinatu ondoren, Belarmendik Udalari jakinarazi dio aipaturiko lau langileak 2016ko otsailaren 26tik martxoaren 3ra arituko direla lanean Ibarra, 7.00etatik eta 14.00etara; udal brigadako buruak Udaleko makinaria utzi eta egin beharreko lanak zehaztu ostean.

Kontuan hartuta lau langileak bost egunez lan egiteak 917,40 euroko gastua suposatzen diola Udalari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.210.170.00.00 2016 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2016ko otsailaren 22an buruturiko Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENA: Belarmenditik kontratatutako lau langileak Ibarra 2016ko otsailaren 26tik martxoaren 3ra jardutea, ur bideen kunetak garbitzen, guztira 917,40 euroko zenbatekoagatik.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.210.170.00.00 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Irizpen honen berri kontuhartzaitzari ematea.

#### **4.3 LIZTOR BETZA. MATERIALA**

Ibarra Udalak 2012 geroztik jarduten du liztor beltzaren habiak suntsitzen, 2012ko uztailaren 2an indarrean zegoen alkateak eta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak Fraisoro Eskolan ikastaroa egin ostean.

2012an definitutako protokoloaren arabera, GFAk suhiltzaileak eta basozainak erabili zituen Liztor Beltzaren habiak kentzeko.

2013an, GFAk udalei eskatu zien liztor beltzaren habiak suntsitzeko laguntza, udal bakoitzari lan horretarako bolondres talde bat osatzea eskatuz.

Ibarra kasuan, bi erlezainek (Xabier Pikabea eta Asier Armendáriz) eta udal ordezkari batek osatutako taldea eratu zen, taldekide guztiak behar bezala aseguratuta eta 2013ko uztailaren 22an Fraisoron heziketa ikastaroa jasota, habia nola kendu behar den ikasteko.

Liztor beltzaren habiak kentzeko materiala suhiltzaileen lokaletan gordetzea adostu zen GFaren eta udalen artean, hauek ordutegi zabala baitute eta, horrela, liztor beltzaren habia kentzeko taldeek edozein momentutan hartzea zutelako beharrezko zuten material hori (GFAk eskualde bakoitzeko 3 buzo utzi zituen).

2014ko ekitaldian, ordea, GFari ezinezkoa izan zitzaion 2013ko protokoloarekin jarraitzea, EJko Osasun Sailak biozidak erabiltzeko legislazioa betetzea derrigortu baitzuen; ondorioz, liztor beltzaren habiak suntsitzeko eratuta zegoen taldeko kideek HAZIk Fraisoron antolaturiko 25 orduko ikastaroa egin behar izan zuten, aipaturiko habiak suntsitzeko gaituta egon zitezen.

Ibarra Udalaren kasuan, Xanti Mendigainek eta Asier Armendarizek egin zuten aipaturiko ikastaroa



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

2014ko abenduaren 2tik 18ra, Xabier Pikabea data horietan kanpoan baitzen. Beraz, gaur egun, liztor beltzaren habiak kentzeko gaituta daudela dioen titulua Xanti Mendigainek eta Asier Armendarizek dute.

2014ko ekitaldian, GFAk udalei jakinarazi zien, liztor beltzaren habiak suntsitzeko suhiltzaileen parkeetako material guztia Landa Garapeneko Elkartetara pasa zutela eta LGEn eskuetan utzi zutela, Tolosaldearen kasuan, Tolomendiko/Belarmendiko lokalean.

Kontuan hartuta Belarmendiko lokalean ez dela inor egoten, bertako langileak lokaletik kanpo jarduten baitute lanean; eta beraz, udalek material hori behar duten aldiro ordaindu egin behar izaten dutela (30 euro gutxi gorabehera), Belarmendiko langileek lokal hori irekitzera gerturatu behar izaten dutelako euren lanorduetako denbora galduz.

Kontuan hartuta Ibarako Udalak liztor beltzaren habiak kentzeko erabateko gaitasuna duela.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak aipaturiko habiak suntsitzeko jantziaren eta materialaren aurrekontuak eskatu dituela:

ENPRESA	MATERIALA	EUROAK (BEZ barne)
PROTEC SOLANA	Jantzi osoa	499,95
ZELAIETA	Pertiga,...	1.560,9

Kontuan hartuta Ibarako Udalak zenbateko hori 1.0000.623.172.00.01 2016 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2016ko otsailaren 22an buruturiko Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENA:** Ibarako Udalak liztor beltzaren habiak bere kabuz suntsitzeko ahalmena hartzea, Belarmendiri eskulana eta materiala eskatu beharrik gabe.

**BIGARRENA:** Zelaietaren eta Protec Solanaren aurrekontuak onartzea, 1.560,9 euroko eta 499,95 euroko zenbatekoengatik, biak BEZ barne.

**HIRUGARRENA:** Irizpen honen berri Zelaietari eta Protec Solanari ematea.

**LAUGARRENA:** Irizpen honen berri kontuhartzaitzari ematea.

**BOSGARRENA:** Kontuhartzaitzak zenbateko horiek 1.0000.623.172.00.01 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea fakturak iristen direnean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

#### **4.4 UDALAREN ETA MERKATARI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

Ibarrako merkatari elkarteak hainbat ekintza antolatzen ditu urte osoan zehar, eta horretarako Eusko Jaurlaritzatik Merkaguneko diru laguntzak jasotzen ditu.

Kontuan hartuta aipaturiko Merkaguneko diru laguntzak lortu ahal izateko ezinbestekoa zaiola merkatari elkarteari Udalarekin “Akordio Marko” hitzarmena sinatzea, non urte osoan zehar antolatutako ekintza guztiak deskribatzen diren.

2016ko otsailaren 22an buruturiko Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENA: Merkatari elkarteak 2015 urtean antolatutako ekintzak deskribatzen dituen hitzarmena sinatzea, “Akordio Marko”, merkatari elkarteak merkaguneko diru laguntzak jaso ditzan.

BIGARRENA: Irizpen honen berri merkatari elkarteari ematea.

### **5.- 2016KO OTSAILAREN 19AN BURUTURIKO GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUN BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIEN ONARPENA**

#### **5.1 KALE HEZITZAILEAK. KONTRATUAREN LUZAPENA**

Bi mila eta hamalauko otsailaren hogeita zazpian, Ibarrako udalak, NURA Gizarte Elkarterekin, “Arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoen heziketan eskuhartze zerbitzua” emateko akordioa sinatu zuten.

Kontratuaren hirugarren klausulak honela dio hitzez hitz:

“HIRUGARRENA: Kontratuaren iraupena 2014ko MARTXOAREN 5etik 2016ko OTSAILAREN 29ra izango da. Udaltzarako luzatu ahal izango du beste bi urtez, alkateak edo Tokiko Gobernu Batzarrak hala erabakita”

Gizarte langileak, kontratua luzatzearen aldeko proposamena egiten du

2016ko otsailaren 19an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENENGOA: Onartzea Nura Gizarte Elkartearen kontratua luzatzea 2018 urteko otsailaren 28rarte.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta Nura Gizarte Elkarteari

## **5.2 ZUZKIDURAKO BIZITOKIAK: KANONAK BERRIKUSTEA**

Zuzkidurako bizitokien erregelamenduak onartutako aldaketaren arabera honela dio hitzez hitz bere I-10 art. 2 puntua 4 paragrafoan.

“Ibarrako udalak urtean behin berrikusiko du kanona ofizioz. Berrikuste hori uztailean egingo da, errenta aitortpena bukatutakoan.

Halaber, kanona urtean beste behin berrikusi ahal izango da esleipendunak hala eskatuta. Horretarako bere diru-sarreretan izandako aldaketaren inguruko dokumentazio guztia aurkeztuko du. Eskaera hori derrigorrezko berrikusketa egin eta 6 hilabetera egingo da.”

Artikulu honi helduta bi kanon aldaketen eskaera izan ditugu

### 1.- L.A.O.

Bere egoera ekonomikoaren dokumentazioa osoa ekarri du. Aztertu ondoren, 250 €tik 150 €a jaistea proposatzen da, 2016ko uztaila arte.

### 2.- A.S.H.

Bere egoera ekonomikoaren dokumentazio osoa ekartzen du. Aztertu ondoren, 300 €tik 150 €a jaistea proposatzen da, 2016ko uztaila arte.

2016ko otsailaren 19an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

## ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea LAO ren eskaera eta Euskal Herria 18ko etxebizitzaren kanona 250tik 150 eurotara jeistea 2016ko martxotik 2016 urteko uztailerarte.

BIGARRENGOA: Onartzea A.S.H ren eskaera eta Euskal Herria 18ko etxebizitzaren kanona 300 eurotik 150 eurotara jeistea 2016ko martxotik 2016 urteko uztailerarte

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari, Euskal Herria 18ko adminstratzaileari eta Gizarte Zerbitzu sailari.

## **6.- TOLOSALDEA GARATZENNI EGIN BEHARREKO EKARPENA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

2016ko otsailaren 10ean Tolosaldea Garatzenek eskaera aurkezten du 2015eko abenduak 17ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2016urterako Tolosaldea Garatzen egin beharreko ekarpena ordaindu diezaion Ibarra Udalak.

Ordainketa bi zatitan egiten da; bata 2016ko martxoaren 30ean eta bestea 2016urteko irailaren 30ean.

Lehen ordainketa 14.559,50 eurotako izango da eta transferentzia bidez ein beharko da.

Guztia kontuan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzar honek aho-batez harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea Tolosaldea Garatzenei 14.559,50 eurotako ekarpena ordaintzea, 2015eko abenduak 17ko Batzar Orokorrean onarturiko Gestio Planak adierazi bezala.

**BIGARRENGOA:** Kontuhartzailletza sailari ordainketa 2016ko martxoak 30 baino lehen 14.559,50 eurotako ordainketa egitea agintzea

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman Kontuhartzailletza sailari eta Tolosaldea Garatzeni

**7.- GOBERNU BATZORDEAREN PRESTAKETAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIA**

Gobernu Batzordeak erabakiak hartzerako orduan teknikarien aktekin arazoak ditu. Itzultzailearen lana errezteko, Idazkariaren lana egokitzeko eta Batzordekideek erabakiak egoki hartu ahal izateko honako erabakia hartzen da.

Hau da Tokiko Gobernu Batzar honek harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Teknikari denei jakinarazten zaie Gobernu Batzordeak hileko bigarren eta laugarren ostiralean egingo direla. Ondorioz aste horretako asteazkenerako Idazkariari, eguadiako 12:00ak baino lehen, Gobernu Batzordean erabaki behar diren gaiak txukun eta euskaraz igorri behar zaizkio (ez akta osoa baizik soilik Gobernu Batzordean hartu behar diren erabakiak igorri beharko dira). Egun eta ordu horretan igortzen ez diren gaiak ez dira Tokiko Gobernu Batzordean onartuko eta hurrengo deialdirako utziko dira. Ez dira onartuko deialditik kanpo dauden gaiak.

**BIGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman sail guztietako teknikariei.

**8.-GALDERA ETA ESKAERAK.**

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamabiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## I ERANSKINA

### **IBARRAKO UDALEAN OBRA ENKARGATUA LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK**

Lehena. Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da ondoren zehaztuko den hutsik dagoen lanpostua betetzeko prozedura arautzea . Horretarako merituen bidezko lehiaketa egingo da.

Lanpostua: Obra enkargatua

Taldea: C2

Lanpostu mailako osagarria: 20

Berariazko osagarria: 850 puntu

Hizkuntza eskakizuna: 2.a derrigorrezkoa

Titulazioa: LH 1. Eskola graduatua edo antzekoa.

Beste betekizun batzuk: B motako gidatze-baimena.

Bigarrena. Izangaiak onartzeko baldintzak .

- a) Karrerako funtzionarioa izatea Ibarra Udalaren zerbitzura eta Administrazio Bereziaren, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Ofizioetako Langilea, C2 azpitaldeko plaza batera behin betiko adskribatuta egotea.
- b) Zerbitzu aktiboan izatea edo bestelako administrazio egoeran, etenaldi irmoan izan ezik.
- c) Bere behin betiko lanpostuan gutxienez 2 urtez aritu izana eskabideak aurkezteko epea amaitzen den arte, betiere, legeak ezarritako salbuespenak kontuan izanda.
- d) Euskarazko 2 HE, derrigorrezkoa.

Ezingo dute parte hartu lehiaketan honako hauek:

- a) Funtzionarioak, baldin eta lehiaketa bidezko lanpostu bat jabegoan bete badute aurreko bi urteetan, berdin da zein den jatorrizko administrazioa edo zein taldekoa den. Denbora muga hau ez da kontuan hartzen langileak lehiaketa bidez lortu duen lanpostuarekiko atxikipena galdu badu.
- b) Edozein funtzionario, baldin eta zereginen etenaldi irmoan aurkitzen bada, egoera horrek dirauen bitartean.
- c) Bestelako langileak, baldin eta borondatezko lan utzialdian aurkitzen bada interes partikularrengatik edo senidetzeagatik, eta berriz sartzeko eskatutako gutxieneko denbora igaro ez badu.  
4 . Lan utzialdi egoerak, lanpostua mantenduz edo adin txikikoak zaintzeagatik lan egindako denboratzat hartuko dira parte hartze eta balorazio garaian.

Hirugarrena. Eskabideak arkezteko modua eta epea.

Eskaerak, meritu lehiaketan parte hartzeko eskatuz, eredu ofizial eta normalizatuan egin behar dira. Eredu hori oinarri hauen I Eranskinean dator (Eskaera orria).





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Ibarrako Udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio; Ibarrako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira. Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira ondorengo xedapen honetan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 38.4 artikulua araber, 15 laneguneko epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Lehiaketan parte hartzeko eskabideek baldintza hauek bete behar dituzte onartuak izateko:

- a) Bigarren oinarrian jasotzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu beharko dute, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan izanda.
- b) Ebaluazio batzordeak bere balorazioa egin ahal izateko, izangaiek ahalik eta datu gehien adieraziko dute merituei buruz, formakuntza eta lan arlokoak. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira- ez bada udal honetan- horiek egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak nahiz kopia konpultsatuak, eta ondoren adierazitako moduan:

-Lan eskarmentua enpresaren edo Administrazioaren ziurtagirien bidez egingo da. Bertan kontratuaren iraupena, dedikazio portzentaia, lan kategoria eta burututako zereginak zehaztuko dira. Ibarrako udalean lan egin badu, nahikoa izango da hori adieraztea eta hautagai horren espedientean dauden datuak baloratuko dira.

- Formakuntza saioen egiaztagiria: beren iraupena ordu edo kredituetan eta baita edukia ere, baldin eta hori argi ez bada azaltzen izenburuan. Ez dira aintzat hartuko iraupena jasotzen ez duten egiaztagiria.

- Antzinasunari buruzko meritua baloratuko dira egiaztatu beharrik izan gabe, Giza Baliabideetako departamentuan dauden datuen arabera.

Laugarrena. Izangaien onarpena .

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, alkateak onartu eta baztertuen zerrenda argitaratu egingo du, balorazio batzordea osatzen duten kideen izendapenarekin batera. Berau argitara emango da Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian: [www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus). Hamar eguneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betiko bihurtuko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada aurkezten. Erreklamaziorik aurkezten bada, onartu edo ezetsi egingo dira, beste ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan behin betiko zerrenda onartuko da eta Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian: [www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus) . argitaratuko da.

Bosgarrena. Batzorde ebaluatzailea

1. Batzorde ebaluatzailea kide anitzeko izango da, izaera teknikoa izango du eta bere eraketak profesionaltasun eta espezializazio printzipioei erantzungo die.

Batzorde horren kide kopurua bakoitia izango da, bost gutxienez eta alkateak izendatuak. Horietatik bat lehendakari izango da eta beste bat idazkari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

2. Balorazio batzordeek deialdia egin duen agintaritzari eska diezaioke aholkuari gisa lan egingo duten adituak izendatzeko. Horiek hitza izango dute baina botorik ez.
3. Balorazio batzordeen osaerak bere kideen egokitasun eta kualifikazioa bermatu behar ditu. Helburu horrekin deia egiten duen organoak lanpostu horien eduki funtzionala ezagutzea zainduko du, eta baita aukeraketa teknikak nahiz deialdiko merituen egiaztatzea.
4. Balorazio batzordeetako kideak karrerako funtzionarioak izango dira, deitzen den lanpostuak duen titulazio maila berdinekoa edo goragokoa. Ahal dela taldeko erdia lanpostu horretako zereginetan aritu izana izango da edo ezagutza horiek dituen.
5. Balorazio batzordeak independentzia osoz, diskrezio tekniko eta objetibotasunez jardungo du. Beren proposamenak lotesleak izango dira administrazioarentzat. Balorazio batzordeen jarduketek duten diskrezionalitate teknikoa baztertu gabe, bere ebazpenak arrazoituak izango dira araudiaren eta deialdiaren oinarrien arabera.
6. Balorazio batzordearen eraketa eta jarduketa arau hauen arabera izango da: Oinarri hauek, aplikagarri den araudia eta azaroaren 26ko 30/1992 legea, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoa eta Administrazio prozedura Erkideari buruzkoa.

Seigarrena. Komunikazio eta jakinarazpenak

Prozedura honetatik eratorritako Balorazio batzordearen komunikazio eta jakinarazpen oro Ibarako udaletxeko iragarki oholean eta web orriaren bidez egingo dira.

Zazpigarrena. Lehiaketa

Batzordeak agiri bidez alegatu eta egiaztaturiko merito guztiak baloratuko ditu hirugarren oinarriaren arabera eta iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna kontuan izanda.

Lehiaketaren gehieneko puntuazioa 10 puntu dira, eta gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira.

7.1 Egindako lanaren balorazioa:

-Herri administrazioan edota enpresa pribatuan izandako esperientzia, lortu nahi den lanpostuaren zereginekin loturiko lanpostuetan. Gehienez 4 puntu, 0,04 puntu hilabeteko.

Emaitza izango da lan egindako aldiak batuta lortutakoa, eta hilabete baino gutxiagoko aldiak ez dira kontuan hartuko. Hilabetetzat hartuko da 30 egun naturaleko aldia.

7.2 Antzinasuna:

Emandako zerbitzuak baloratuko dira 3 puntu arte. Honela egingo da batuketa:

- Herri administrazioiko zerbitzuak, 0,02 puntu hilabete osoko.

Lan egindako aldiak batuko dira eta hilabete baino gutxiagoko aldiak ez dira kontuan hartuko. Hilabetetzat hartuko da 30 egun naturaleko aldia.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Karrerako funtzionario izan aurretiko zerbitzuak batuko dira, betiere egiaztatuta baldin badago.

### 7.3 Proba praktikoa:

Lanpostuarekin zerikusia duten proba bat edo batzuk egingo dira eta 2 puntu baloratuko da.

### 7.4 Formakuntza ikastaroak:

Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak: puntu 1 arte. Atal honetan baloratuko dira HAEEK, INAPEk eta formazioko gainerako Zentro ofizialek emandako ikastaroak, baita etengabeko formaziorako hainbat lankidetzak erakundek emandako ikastaroak, betiere, lanpostu horren zereginekin lotura estua badu. Ordu kopuruaren arabera baloratuko dira ondorengo taula honi jarraituz:

-10-40 ordu bitartekoa: 0,25 puntu.

-41-80 ordu bitartekoa: 0,50 puntu

-80 ordu baino luzeagoa: 0,75 puntu.

Zortzigarrena. Balorazio batzordearen proposamena.

Lehiaketa amaitutakoan, balorazio batzordeak behin-behineko proposamena egingo du aukeratze prozesuan zehar puntu gehien lortu duen izangaiaren alde, betiere, gutxieneko puntuazioa lortu baldin badu.

Proposamen hau Ibarako udaletxeko iragarki oholean emango da argitara eta 10 eguneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazio hauek balorazio batzordeak ebatziko ditu.

Berdinketa emango balitz, lege honen arabera erabakiko da: urriaren 13ko 190/2004 Dekretua, Herri Administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Erregelamendua onartzen duena, eta zehazki bere 20 art.

Balorazio batzordeak lehiaketa hutsik uztea proposatuko dio eskumeneko organoari inork ez badu gaituzten ezarritako gutxieneko puntuazioa.

Proposamena behin betikotzat ulertuko da erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Halakorik aurkeztuko balitz, onartuak edo baztertutak izango dira esleipen proposamen berri baten bidez eta hori lehen aipaturiko moduan emango da argitara.

Bederatzigarrena. Ebazpena, uzte eta kargu hartzea.

Proposatu den izangaiak 10 eguneko epean, iragarkia egiten denetik kontaktzen hasita, aurkeztuko ditu oinarri hauetan jasotzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen ditueneko egiaztagiria. Horrez gain, alegatu dituen merituen jatorrizko agiriak, baldin eta bere espedientean jasota ez badaude.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Lehiaketa alkate dekretu bidez erabakiko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

Hiru eguneko epea dago lanpostuaren jabe egiteko, behin lehiaketaren iragarkia ematen denetik kontatzen hasita.

Dena den, antolakuntza arrazoiak direla eta, hori ezineko bada, kargu hartzearen egun zehatza zehaztu ahalko da.

Hamargarrena. Mugikortasuna.

Funtzionarioak bi urte gutxienez egon beharko du behin betiko lanpostuan hurrengo lehiaketetan parte hartu ahal izateko.

Hamaikagarrena. Aplikagarri den araudia.

Oinarri hauetan zehaztu ez den guztirako, merito bidezko lehiaketan kontuan izango dira lege hauek: uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko legea; abuztuaren 2ko 30/1984 Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzko legea; apirilaren 12ko 7/2007 legea, Herri Langilearen Oinarrizko Estatutuari buruzkoa; Herri Administrazioetako Lanpostuak betetzeko Erregelamendu orokorra, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak onartua.

Hamabigarrena. Aurkaratzeak

Deialdi hau, honen oinarriak eta bertatik eratorritako egintzak aurkara daitezke Herri Administrazioetako Araubide Juridiko eta Prozedurari buruzko legeak aurreikusitako moduan.

## **1 ERANSKINA**

### **OBRA ENKARGATUA LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA**

<b>SARRERAREN ERREGISTROA</b> <b>REGISTRO DE ENTRADA</b>	<b>Deialdiko lanpostua / Puesto al que opta</b>
	GAOren data / Fecha BOG



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

	<b>Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu ariketak? / ¿En qué lengua desea realizar las pruebas?</b>  Euskaraz / En Euskara <input type="checkbox"/> <span style="float: right;">Gaztelaniaz / En castellano</span> <input type="checkbox"/>
--	---

### 1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

1. deitura / 1er apellido	2. deitura / 2º apellido	Izena / Nombre
NAN / DNI	<b>Kontaktuko telefonoa(k) / Teléfono(s) de contacto</b>	<b>Jaioteguna / Fecha de nacimiento</b>
<b>Bizilekua / Domicilio</b>	<b>Herria / Localidad</b>	<b>Posta-kodea / Código Postal</b>
<b>Probintzia / Provincia</b>	<b>Gidatzeko baimena / Permiso de conducir</b> Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/> Mota / Clase _____	
Minusbaliatua bazara, zenbat denbora eta zer bitarteko berezi behar dituzu azterketak egiteko? (behar badituzu) / En caso de que sea minusbálido, ¿qué tipo de adaptación de tiempo y de medios necesita para la realización de los ejercicios? (en el supuesto de que los necesite).		

### 2. FORMAZIOA / FORMACION

Deialdian eskaturiko titulu akademiko ofiziala / Título académico oficial exigido en la convocatoria.

TITULUA / TITULO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD DE EXPEDICIÓN	NOIZ LORTUA FECHA OBTENCIÓN

### 3. FORMAZIOA (MEREZIMENDUAK) / FORMACION (MERITOS)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Hautagaiak idatziz adierazten dituen datuak, merezimenduak kalifikatzeko (bestelako tituluak, ikastaroak, mintegiak, diplomak...) Datos que el aspirante hace constar para la valoración de méritos (otros títulos, cursos, seminarios, diplomas...)

TITULUA / TITULO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD DE EXPEDICIÓN	KREDITUAK EDO ORDU KOPURUA CREDITOS O Nº DE HORAS DE DURACION

**4. ESPERIENZA / EXPERIENCIA**

Administrazio Publikoan edota enpresa pribatuan (merezimenduak kalifikatzeko) / En la Administración Pública y/o en la empresa privada (para la valoración de méritos).

NOIZ SARTUA FECHA INGRESO	NOIZ UTZIA FECHA CESE	ADMINISTRAZIOAREN edo ENPRESAREN izena Nombre de la ADMINISTRACIÓN o la EMPRESA	BETETAKO LANPOSTUA PUESTO de TRABAJO OCUPADO



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD:**

- DNIaren fotokopia / Fotocopia del DNI
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko tituluaren fotokopia / Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Hizkuntzazko Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo titulu baliokidearena) / Fotocopia del certificado del Perfil Lingüístico (o del título equivalente).

Behean sinatzen duen honek <b>ESKATZEN DU</b> onartua izan dadilaeskabide honetan adierazitako hautaprotetan, eta <b>BAIEZTATZEN DU</b> egiazkoak direla hemen adierazten dituen datuak eta betetzen dituela deialdiko Oinarrietan eskaturiko baldintzak eta eskakizunak. Horretarako, hitz ematen du jatorrizko agirien bidez egiaztatuko ditueala eskatzen dizkiotenean.	El abajo firmante <b>SOLICITA</b> ser admitido a las pruebas selectivas a la que se refiere la presente instancia y <b>DECLARA</b> que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones y los requisitos exigidos en las Bases de la convocatoria, comprometiéndose a acreditarlos fehacientemente en el momento en el que le sean requeridos
--	--

Data / Fecha \_\_\_\_\_

Sinadura / Firma

**IBARRA UDALEKO ALKATE-PRESIDENTEA.**  
**SR.. ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE IBARRA**

Izaera pertsonaleko datuen babeserako 15/1999 Lege	En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 sobre
--	--



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<p>Organikoa betez, jakinarazten dugu eskatzaileak emandako datu pertsonal guztiak Ibarra Udalaren eskuzko fitxategi automatizatu batean sartuko direla.</p> <p>Sinatzaileak datuen egiazotasuna bermatzen du eta Ibarra udalari emango dio edozein aldaketaren berri.</p> <p>Datu hauek sortu diren helbururako soilik erabiliko dira eta ez dira hirugarren batzuei utziko interesatuaren baimenik gabe, 15/1999 legeak edo beste lege batzuek jasotako kasuetan izan ezik.</p> <p>Eskatzaileak bere helbide elektronikoa ematean, Ibarra udalari baimena ematen dio komunikatzeko, agiriak trukatzeko eta jakinarazteko, eskaera honekin zerikusia duten administrazio egintza guztien balio sinesgarriarekin.</p> <p>Horrez gain, interesatuak erabili ahalko du duen eskubidea Sartzeko, Zuzentzeko, Aurkaratzeko edo Uzteko. Horretarako gutun bat idatzi behar dio Ibarra Udalari (San Bartolome 2, 20.400 Ibarra) edo e-mail bat idatzi (<a href="mailto:ibarra@ibarra.eus">ibarra@ibarra.eus</a>) eta gai hau jarri: "DBLG, ARCO eskubideak" eta NANren fotokopia erantsi, legeak dioena betez.</p>	<p>protección de datos de carácter personal, informamos que todos los datos de carácter personal, facilitados voluntariamente por la persona solicitante, serán incorporados a un fichero manual y automatizado, propiedad de Ayuntamiento de Ibarra.</p> <p>El firmante garantiza la veracidad de los datos aportados y se compromete a comunicar cualquier cambio que se produzca en los mismos a Ayuntamiento de Ibarra.</p> <p>Estos datos solo serán utilizados para las finalidades para las que son recabados y no serán cedidos a terceros sin consentimiento expreso del interesado, salvo en los supuestos contemplados en la Ley 15/1999 o por la aplicación de otras leyes que así lo regulen.</p> <p>La persona solicitante, al facilitar su correo electrónico, Autoriza al Ayuntamiento de Ibarra a su uso como canal de comunicación, intercambio de documentación y notificación con pleno valor fehaciente y probatorio de cuantos actos administrativos le afecte en relación a la presente solicitud.</p> <p>Así mismo, se informa que el interesado, puede ejercitar sus derechos de Acceso, Rectificación, Oposición y Cancelación dirigiendo una carta a Ayuntamiento de Ibarra, C/ San Bartolomé 2, 20400 IBARRA, enviando un correo electrónico a <a href="mailto:ibarra@ibarrakoudala.net">ibarra@ibarrakoudala.net</a>, indicando como Asunto: "LOPD, Derechos ARCO", y adjuntando fotocopia de su DNI, tal y como indica la ley</p>
--	---